

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

#### **Foru Gobernu Kontseiluaren 537/2021 Erabakia, irailaren 21ekoa. Berrespena ematea UNEDen Gasteizko Zentro Elkartuaren Unibertsitate Partzuergoaren estatutuak aldatzeko erabakiari**

Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak, Sektore Publikoa Arrazionalizatzeko eta Administrazioa eraberritzeko beste zenbait neurri buruzko irailaren 16ko 15/2014 Legeak eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak eragin handia izan dute UNEDen eta hari atxikitako Zentroen arteko Hitzarmenen Araubideari buruzko uztailaren 21eko 1317/1995 Errege Dekretuan eta harekin bat datozen arauetan. Izan ere, abenduaren 27ko 27/2013 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarriaren aginduz, lehendik dagoen partzuergoa esparru juridiko berrira egokitzeko eskatzen da, UNEDi atxikitako Gasteizko zentroari lege euskarria ematen dion figura juridiko gisa.

Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak (TAAIL) 9. xedapen gehigarrian, 2. puntuan, behartu egiten zuen Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren zentro elkartuen funtzionamendurako sinatutako lankidetzaren tresnak hiru urteko epe luzeazinean haren xedapenen ondoriozko esparru juridiko berrira egokitzera behartzen zuen.

Ondorioz, izapidetu beharreko estatutu aldaketa izapidetu zen, eta honako hauek berretsi zuten: UNEDen Gobernu Kontseiluak, 2021eko apirilaren 27an; Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak, 2021eko maiatzaren 11n; Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko ekainaren 18an, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Gobernu Kontseiluak, 2021eko uztailaren 15ean.

Iragan uztailaren 29an, Zuzendaritza Batzordeak aho batez bozkatu zuen estatutuen 15. artikuluen aldaketa.

Horregatik guztiagatik, bat etorri Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko azaroaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 8., 40. eta 100. artikuluetan xedatutakoarekin eta oro har aplikatzekoak diren gainerakoekin, diputatu nagusiak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran aztertu ondoren, hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Berrespena ematea UNEDen Gasteizko Zentro Elkartuaren unibertsitate partzuergoaren estatutu aldaketaren erabakiari, bai eta aldaketa hori egin ondoren geratzen den testuari ere, erantsitako eranskinaren arabera. Aldaketa hori aho batez erabaki zen 2021eko apirilaren 29ko Patronatu Batzordearen bileran, idazkari akademikoaren egiaztagirian jasotzen denaren arabera.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 21a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Kabinetearen eta Komunikazioaren zuzendaria*

**ELENA FERREIRA SEBASTIÁN**

**ERANSKINA****ONARTU BEHARREKO ALDAKETA****15. artikulua. Finantzaketa**

1. Araubide juridikoa. UNEDen Gasteizko Zentro Elkartuaren Partzuergoaren aurrekontu-, kontabilitate- eta kontrol-araubidea UNEDi aplikatzen zaiona izango da, hari atxikita dagoelako, hargatik eragotzi gabe Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan aurreikusitakoa betetzea. Nolanahi ere, urteko kontuen auditoretza bat egingo da, eta Estatuko Administrazioako Kontu-hartzaitza Nagusiaren erantzukizuna izango da, UNEDen estatutuen 237. artikulua araber, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 122.3. artikuluaekin lotuta.

Estatuko Administrazioako Kontu-hartzaitza Nagusiak eginkizun hori betetzean egiten dituen txostenak urteko kontu horietan sartuko dira, eta UNEDera bidaliko dira, UNEDen kontuekin batzeko, Zuzendaritza Batzordeari kudeaketa-araubidea ezartzeko aukera kendu gabe.

2. Urteko aurrekontua. Zentro elkartuak behar bezala funtzionatzeko urteko aurrekontu arruntari dagozkion gastu guztiak finantzatzeko konpromisoa hartzen du Partzuergoak; hala nola: langileen, lokalen, eraikinen, instalazioen eta materialen gastu guztiak; irakasleak, tutoreak eta ikastetxeko beste langile batzuk unibertsitateak antolatutako bileretara joateko joan-etorrien gastuak; unibertsitateko sailtako irakasleek zentro elkartuaren barruko mintegietan eta bizikidetzetan parte hartzeko egiten dituzten joan-etorrien gastuak, bai eta bekak eta zentroaren aurrekontu arruntean esleitutako beste edozein gastu ere.

Partzuergoko erakundeek, urtero, zentroaren gastu guztiak diruz laguntzeko behar diren partidak sartu beharko dituzte beren aurrekontu arruntetan.

3. UNEDetik datorren ohiko finantzaketa. Urrutiko Hezkuntzako Unibertsitate Nazionalak ordenamendu estatalean (gaur egun, uztailearen 21eko 1317/1995 Errege Dekretuan), UNEDen estatutuetan eta gainerako araudi propioan zentro elkartuetarako aurreikusten den diru-ekarpena egingo du. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 1eko 38/2003 Lege Orokorraren 2.2. artikulua araber, finantzaketa hori ez da sartuta egongo lege horren ezarpen-eremuan.

4. Partzuergoko gainerako erakundeetatik datorren ohiko finantzaketa. Eusko Jaurlaritzaren finantzaketa horretarako sinatutako hitzarmenean jasotakoa izango da. Zentro elkartua finantzatzen duten gainerako erakundeek haien diru ekarpenak urtero eguneratzeko konpromisoa hartzen dute, eta Zuzendaritza Batzordean onetsitako irizpidearekin bat etorri egingo dute. Ondorio horietarako, ekarpen hori berrikusi egingo da, zentro elkartuaren azken aurrekontuan jasotakoaren aldean.

Akordio honetan aurreikusten diren ekarpenak aurrekontu-ekitaldiaren hasieran egin beharko dira; beranduenez, martxoan.

Partzuergo erakunde berriren bat sartuz gero, Zuzendaritza Batzordeak zehaztuko du haren ohiko ekarpenaren zenbatekoa.

5. Bestelako finantzaketa. Partzuergoak artikulua honetan adierazten diren ohiko diru-ekarpenez bestelako dirulaguntzak jaso ahalko ditu Partzuergoko erakundeetatik eta hirugarrenengandik.

6. Ikasleei matrikulatik datozen bestelako nahitaezko ordainketak ezartzeko debekua. Zentro elkartuak ezin izango du jaso unibertsitatean matrikulatutako ikasleen dirurik irakaskuntza arautuengatik, eta ezin izango du inolako jarduera osagarri ezarri, jarduera horiek egiteko zerbait ordaindu behar bada. Halaber, ezingo da inolako loturarik egon zentroaren eta ikasleei eskolak ematen dizkieten bestelako erakundeen artean, UNEDen aurretiko eta berriazko baimenik egon ezean.